

LANBIDE HEZIKETAREN NAZIOARTEKO TOPAKETA

Ekainaren 10 eta 11n egin da Lanbide Heziketaren Nazioarteko Topaketa Donostiako hiri zoragarrian, Kursaal Kongresu Jauregian. Bertan elkartu dira enpleguaren, espezializazioaren eta produkzio aurreratuaren arloan diharduten Europako arduradunak, Estatuko adituak eta Euskadikoak, topaketaren ardatz izan diren gaiez aritzeko: FABRIKAZIO AURRERATUA, BESTELAKO LANBIDE-ORIENTAZIOA ETA ETORKIZUNEN EKINTZAILEA.

Topaketan landu diren edukien bidez aztertu da lanbide-heziketak duen garrantzia pertsonentzat, lehiakortasunarentzat eta enpleguarentzat. Aldaketa-garaian gaude betebetean; Euskadin ekonomia inteligente, jasangarri eta integratzailea nahi dugu, maila handiko enplegua, produktibitatea eta gizarte-kohesioa eskainiko dituen. Momentu hau erabakigarria da enpresen lehiakortasuna eta pertsonen enplegarritasuna sendotzeko.

Atsedenerako ia astirik gabeko bi egun izan dira, edukiz beteak, eta arrakasta handikoak parte-hartzeari dagokionez: 1200 lagunetik gora izan dira bi egunetako saioetan, Lanbide Heziketako ikastetxeentzat, enpresa eta erakundeentzat erronka berriak eta helburu komunak bilatzeko xedearekin egin den topaketa honetan. Gainera, topaketa honek aukera eman du Euskadiko, Europako eta Munduko LHri jarduerak eta proiektu aurreratuak egiteko zabaldu zaion esparru berriaren inguruko esperientziak aztertzeko, debatzeko eta elkarrekin partekatzeko.

Bi egun hauek oso lagungarriak izan dira ikastetxeen, enpresen eta erakundeen arteko harremanak estutzeko, LKko ikastetxeentzat baliagarriak diren ezagutzak, esperientziak eta tresnak elkarrekin trukatzeko. Konplexutasun handiko etorkizunak ekarriko dizkion erronkei aurre egin beharko dien lanbide-heziketa hori gero eta hobea izan dadin.

ZIFRAK:

Bi egun hauetan zehar **Cristina Uriarte** Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren hitzetan entzun dugu Lanbide Heziketak zein garrantzi handia duen eta LHk «lehetasuna» duela. Euskadiko "Lanbide Heziketaren dinamismoa" nabarmendu du, eta proiektuaren hiru "gakoak" azpimarratu ditu: "prestakuntza integrala, produkzio-ehunarekin duen konplizitatea eta enplegura bideratua izatea". Sailburuaren ondotik mintzatu dira **Stephen Farry**, Ipar Irlandako Ikaskuntza eta Enplegu ministroa, eta **Jorge Arévalo**, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordea, ezina ekinez egiteko ausart jotzeko ausardiaz aritu dena.

Kongresuko bi egunetan zehar 40 lagunetik gora aritu dira logistika-lanetan, eta 1200 entzule inguru izan dira, 12 hizlarik emandako 14 ponentziatan. Europako Erkidegoko eta beste hainbat herrialdetako adituak eta entzuleak etorri dira, Irlanda, Alemania, Finlandia, Brasil, Estatu Batuetatik eta atzerriko beste hainbat lekutatik; beste erkidego batzuetako irakasleak ere gure artean izan dira, ponentzia guztiak ingelesera eta euskarara itzuli dira, ostalaritza-eskoletako 35 ikasle baino gehiago aritu dira atsedendietako logistikan, LHko ikastetxeek egin dute dokumentazio guztia, diseinua eta inprimaketa grafikoa, ikastetxeetarako bisitak antolatzea. Erakustaldi bikaina.

HITZAK:

Hitz batzuk behin eta berriz entzun ditugu kongresuan parte hartu dutenen ahotan: Lanbide Heziketaren garrantzi erabakigarria eta funtsezko egitekoa pertsonak prestatzeko, orientatzeko eta espezializatzeko eta, batez ere, berrikuntzan eta ekintzailtzan duen funtsezko papera, etorkizuneko ikuspegitik abiatuta bikaintasunaren bila abiatzeko. Lanbide-heziketaren garrantzia, pertsonen, lehiakortasunari eta enpleguari begira.

IZENAK:

Kalitate handiko izen asko pasatu dira topaketa honetan: erakundeen ordezkariek, hainbat eremutako administrazioetako arduradunak eta teknikariak, Europako goi-karguak, Estatu Batuetako, Irlandako, Brasilgo Administrazioetako arduradunak eta estatuko hainbat erkidegotako zuzendari nagusiak. Hona hemen kongresuan entzundako esaldi eta ideia nagusiak:

Jorge Arévalo.- Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako sailburuordea

Lanbide Heziketaren aldeko apustua eta konpromisoa aurkeztu ditu Jorge Arévalok bere ponentzian. Gozamina izaten da beti haren hitzak entzutea Lanbide Heziketaz ari denean, ikastetxeei, ikasgelei, erabili beharreko metodologiei, eta, oro har, LH moderno eta eraginkorra lortzeko proiektuei buruz ari denean. Ponentzian zehar urratsez urrats markatu ditu Euskadiko Lanbide Heziketak eta LHko ikastetxeek egin beharreko pausoak. Bide onetik goazela jakiteak ematen dion konfiantzarekin eta segurtasunarekin, LHrako proposatzen dituen estrategiekin, eta hain berea duen berotasun eta entusiasmo horrekin, arriskatzea proposatu du, proiektu berriekin aurrera egiteko arriskatzea, LHren aldeko lana eta konpromisoa ardatz hartuta, pertsonengan eta enpleguan pentsatuz.



Beste gai batzuen artean, aipatu ditu:

- Espezializazioa eta Elkarlana gehitu beharra, Pertsonen aldeko apustua egin beharra. Irakasleen motibazioa. Autonomia eman beharra, malgutasuna gehitu, sormena bultzatu. ekimen berriei sostengua eman. Tituluak ez du lanposturik bermatzen, gaitasuna behar da.
- Aldaketa eta berrikuntza sustatzea, metodologia aktiboak eta ikaskuntza kooperatiboa erabiltzea; ikasteko metodologietan, prestakuntzaren antolaketan, ikastetxeen egituran, ikasgelen diseinuan eta prestakuntzan bertan erabiltzen eta aplikatzen diren teknologietan egitea komeni den aldaketak aztertu eta inplementatzea.
- Ezagutzaren profesionalak sortzea, etengabe ikasten duten pertsonak, ezagutza-irlarik sortu gabe. Ikastetxeen arteko akordioak sortzea, ikastetxe eta enpresen artekoak, ETEekin elkarlanean jardutea. LH nazioartekotzearen aldeko apustua, lehentasuna ematea orientazio profesionalari eta ekintzailtza aktiboari.
- Administrazioaren kudeaketa efizientea: gauzak gertaraztea. “Zuzendaritzako Taldeekin eta irakasleekin batera lan egingo dugu. Antolamendu inteligenteak” Etengabeko eraldaketa, gardentasuna, elkarrizketa, sormena, konfiantza, konpromisoa, pertsonak baloratzea bultzatu.


- Berrikuntzaren kultura sartu, berrikuntza aplikatuarena. Bakoitzaren aukera izango da, inork ere ezin du ikastetxe bat behartu berritzaile izatera, baina berrikuntza disruptiboa sostengatu eta bultzatu behar da: egin egin behar da. Bidaia da, gogor saiatu behar da. Berrikuntzak ausardia eskatzen du, etorriko da arrakasta.



Denio Rebello Arantes.- Lanbide Heziketako Institutu Federalaren Kontseilu Nazionaleko (CONIF) errektorea eta **Claudia Schiedeck Soares de Souza.-** CONIFeko Nazioarteko koordinatzailea eta Unibertsitate eta Eskola Politeknikoen Federazioko lehendakariordea

Brasildik etorriak herrialde hartan planifikatzen ari diren LH aurkeztera. Lanbide-heziketako

erakundeak indartzea, sendotzea eta finkatzea, zientzia eta teknologia helburu nagusiak dira une honetan. Erakundeen artean informazioa eta esperientziak elkartrukatzea ere bultzatzen dute.



Haien iritziz, 2012a funtsezkoa izan zen, orduan hasi zirelako ekintzailtza eta gizarte-politikak garatzen. Orain hainbat programa garatzen ari dira LH sustatzeko eta sostengatzeko:

- EMBRAP II, berrikuntza bultzatzeko pentsatua.
- PRONATEC, ekintzailtza garatzeko bereziki diseinatutako programa.
- INNOVATIV, berrikuntza garatzeko programa
- PROMETE JUNIOR, titulaziorik gabeko gazteentzako programa.

Brasilen 23.000 ikasle eta 2000 erakunde inguru dabilta LHn.

Planteatzen dute lana edozein lekutan egon daitekeela eta edozein lanetan egin beharreko funtzioak gero eta konplexuagoak direla.

2008an sortu zen LH ikastetxeen Sare Federala. 2000 erakunde inguru dira, herrialde osoan zehar banatuta.

Albert Bosch,

Berak bizi izandako abenturak eta aurre egindako erronkak oinarri hartuta, azaldu du erronka horiek lortzeko oso ondo prestatu behar dela, eta proiektu guztia antolatu behar dela ahalik eta emaitzarik onena lortzeko, bai kirol-erronkari dagokionez eta baita alderdi pertsonal edo profesionalari dagokionez ere, eta horrela erakutsi du Albertek ekintzailetzari buruz duen ikuspegia; bereziki, balioa eranstek duen garrantzia, horrek markatzen duen diferentzia.

Etorkizuneko ekintzaileak proiektuak lan egin behar du; gero eta garrantzitsuagoa da hori, gauzak izugarri azkar aldatzen direlako. Ekintzaileak aldaketaren lagun egin behar du, aldaketarekin aliatu, aldaketan daude aukerak.

Berak egindako abentura harrigarrien bitartez, bere ustez ekintzaileak izan behar dituen gaitasunak murriztu ditu:

- Dakiguna.
- Etengabeko prestakuntza, etengabe ikastea egokitu ahal izateko.
- Une bakoitzeko egoerara egokitzeko jarrera/borondatea.
- Arriskua onartzea, arriskua kudeatu egiten da. Ahal den guztian, aurrea hartu.
- Anbizioa izan, proiektuan sinetsi. Konbentzituruta egon.
- Norabide markatu, bakoitzarentzat duen esanahia.



Alfonso Alcántara.- Enpresa aldaketan eta giza baliabideen kudeaketa berritzailean espezialista.

Orientazioa berrorientatzea, berdintasunerako orientatzea. Pertsonen orientazio profesionalari buruzko aholku eta gida ugari eskaini ditu Alfonsok.

Bere ponentzian profesionalak berrasmatzera animatu du, enplegua bilatzeko eta lanerako aukera gehiago izateko orientatzera.

Gaitasunak axola du eta ikasi egin behar da profesional

izaten.

BIDE ONEAN ORIENTATZEA izeneko ponentzia honekin, ekintzarako orientatu behar dela azaldu du eta esperimintatzera eta profesionalki geure burua berrasmatzera animatu du. Bokazioari ez zaio itxaron behar, bokazioa eraiki egiten da. Besteak beste, azaldu du nola bilakatu 2.0 profesional, nola lortu arrakastako profesionala izatea, lan asko baina oso lanpostu gutxi dagoen mundu honetan.

- Ikasketak izateak duen garrantzia laneko aukerak izateko, eta gero espezializazioak.
- Saiatu egin behar da eta ez etsi, azkenean emaitzak lortu ahal izateko, eta ez ahaztu enplegarritasuna ez dagoela profesioan, profesionalarengan baizik. Ikasi egin behar da profesional izaten. Helburuak eduki behar dira, ereduak, eta aholkuak entzuten jakin.

Beti ekitea gomendatzen du. Zer egin ez dakizunean, bilatu ereduak, begiratu gauzak ondo ateratzen zaizkienei.

Grzegorz Drozd.- Barne Merkatu, Industria, Ekintzailtza eta ETEen Zuzendaritzaren politiken arduraduna. Europako Batzordea.



Europako Lanpostuak Berritzeko Sarearen zuzendaria da (EUWIN, European Workplace Innovation Network).

Asko inbertitzen du Europak berrikuntzan, aurten 14.000 milioi euro inguru izango dira. eta inbertsio horren zati handi bat Fabrikazio Aurreratura joaten da. Esplicatu du beti ez direla emaitzak lortzen, azken produktuak beti ez direla merkatura iristen, lortu nahi den erronka izaten dela produktua sortu eta merkaturatzea, ikerketaren bidez sortzen dena saldu ahal izatea. Europak ahalegina egin behar du berrikuntzan.

Oraintsu sortu da Fabrikazio Aurreratuko lantalde bat; teknologia berriek enpleguan duten eragina ezagutu eta aztertu egin behar da. Gainera, enpresek aurrera egin behar dute, kudeaketa-eredu berriak behar dituzte, giza faktorea indartzen duten ereduak.



Gregorio de Castro.- Enplegu, Gizarte Gai, Gaitasun eta Lan Mugikortasunaren Zuzendaritza Nagusiaren politiken koordinatzailea. Europako Batzordea.

Europako Batzordeak LHri buruz dituen politikez aritu da, eta etorkizuneko egiturarako kezka handia dela azaldu du. Enpresaburuek diote zailtasunak dituztela jende kualifikatua aurkitzeko.

Krisiak modan jarri du lanbide-heziketa European. Enpresetan praktika asko egiten duten LH duten herrialdeetan txikiagoa da gazteen langabezia. Lan-merkatuan sartzeko urratsa askoz arinago egiten da. Kalkulatu da datozen urteetan kualifikazio handia eta erdi-mailakoa duten pertsona asko beharko direla. Gaur egun LHn dauden lehentasunak dira:

- LH duala sustatzea
- Kalitate-kontrolak
- LHn sartzeko erraztasunak ematea
- Gaitasun digitalak
- Irakasleengan inbertitzea.

Mikel Mesonero.- Enpresagintza Fakultateko koordinatzaile akademikoa

Arrasateko Unibertsitateko Leinn Gradua aurkeztu du. Ekintzailtza ikasteko eta taldean ekiten ikasteko lehenengo Gradua Espainian. Ikasleek benetako enpresa bat sortu behar dute ikaskideekin batera, karrerako lehenengo urtetik hasita eta prestakuntza guztian zehar garatzen jarraitu behar dute. "Ekintzailtza ikasleen eguneroko bizitzara eramaten saiatzen da programa. Ekiten ikasteko modurik onena ekitea dela uste du".

Taldean lan egitea, 'Team Learning': Ikasteko tresna nagusietako bat taldea da. Taldean lan eginez ikasten dira praktikan graduak irakatsi nahi dituen abileziak eta gaitasunak. Irakasleen papera erabat aldatzen da, eta orain taldearen coach moduan jarduten du, kirol-talde bat balitz bezala.

Finlandiako eredu batean oinarritzen da (Team Academy). Elkarrizketa, irakurketa, ekintza eta autogestioa dira ereduaren lau ardatzak. Benetako



enpresak: taldeak bere kooperatiba-enpresa sortu behar du. Ikasketa hauen eta pertsonen garapenaren oinarria da etengabe interakzioan egotea benetako munduarekin, benetako enpresa bat sortzea, benetako bezeroentzat eta benetako proiektuekin lan egitea.

Nazioarteko esperientzia: Ikasleak herritar globalak dira eta munduan zehar bidaiatzen dute. Ikasle guztiek bi hilabeteko egonaldia egin behar dute Finlandian Team Academy-n, lehenengo urtean. Gainera, ikasbidaiak egingo dituzte ('learning-journey') Estatu Batuetara bigarren urtean, eta Txina, India, Brasil edo Mexikora hirugarrenean.



P. Anthony Zeiss.- Ipar Carolinako Central Piedmont Community College-ren presidentea

Herrialde baten aurrerapen ekonomikoan sektore industrialak duen garrantziaz mintzatu da, zehazki, fabrikazioak duen garrantziaz. Etorkizuneko arazoa teknikari kualifikaturik ez izatea izango da.

PROFESIONALAK IZATEKO, NAHITAEZKOA DA PERTSONEN PRESTAKUNTZAN INBERTITZEA, Hezkuntza finantzatzea etorkizunean inbertitzea da.

Etorkizunari begira planteatzen diren erronkak aurrerapen teknologikoetan daude, belaunaldien erreleboan, teknologia horietarako adituak prestatzean.

Haren estimazioaren arabera, manufaktura-industrian inbertitzen den \$ 1.00 bakoitzeko, beste \$ 1.37 eranstean zaizkio ekonomiari.


Kalkulatzen da 2025erako 3.4 milioi teknikari beharko direla, baina 1.4 milioi postu bakarrik beteko direla, profesional prestatuak faltako direlako.

Gazteak eta ez hain gazteak erakartzeko eta sostengatzeko politikak sustatu behar dira, fabrikazioko ikasketak egin ditzaten eta kompetentzia industrialetan prestakuntza jaso dezaten.

Antxon López Usoz- DANOBATGROUPEko Berrikuntza zuzendaria eta Zuzendaritzako kidea eta AFMko lehendakaria.

Mundua martxan dago, sektore industrial sendoa behar dugu. Industriaren etorkizuna aurkeztu zigun, 4.0 iraultza. Benetan interesgarria "Industria 4.0" kontzeptuaren aurkezpena, "makinak prest daude inteligentzia gehiago eransteko, sentsorika gehiago, etab., produktibitate handiagoa eta zerbitzu gehiago emateko", dagoeneko ikus daitezke lehenengo aplikazioak ingurune industrialetan.

Aro berri bat da, baina oraindik Elektronikaren, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (EIKT) eskaintzen dituzten posibilitateen potentzial izugarri horren zati txiki-txiki bat besterik ez dugu ikusten. Produkzio-prozesuak gero eta azkarragoak izango dira, efizienteagoak eta malguagoak.



Edozein pieza fisiko sortu ahal izatea 'print' tekla sakatuta, fabrikazio eransgarriari edo 3D inprimaketari esker; automatismo desberdinak konekta daitezke beren artean nahiz langileekin interakzioan jarduteko robotika kolaboratzailearen bitartez; ibilgailu baten funtzionamendua edo ospitale batena digitalizatzea gailu inteligentez edo sistema ziberfisikoz hornituz; edozein

elementuri hiru dimentsio emateko ilusioa sortzea, baita bizia ematekoa ere, errealitate emendatuaren bitartez; gure enpresako informazio guztirako sarbide librea, berehalakoa eta segurua izatea 'hodeian' biltegitratzeko sistemari esker; edo datu horiek denak erraz erabili ahal izatea Big Data sistemen bidez. Horiek denak enpresa guztien eskura dauden errealitateak dira eta, gainera, etorkizunean, hain urrun ez dagoen etorkizunean, enpresaren lehiakortasuna bermatzeko lehenengo urratsa, berrindustrializazio berriaren garaian.

Pilar Diez – Ikasenpresa programaren arduraduna TKNIKAn



Eginez ikastea, learning by doing, ikuspegi berritik abiatzen da, irakasuntza tradizionalaren metodoa hautsiz, protagonismoa ikasleari ematen zaio eta irakaslearen lana ikasten laguntzea da.

Hezkuntza-programa honek enpresa bat sortzea eta garatzea proposatzen die ikasleei, ekintzaile izatea zer den ikus dezaten eta horretarako egin behar diren urratsak ezagut ditzaten.

Helburu nagusiak dira ikasleen gaitasun teknikoak eta transbertsalak garatzea, pertsona aktiboak eta profesional on eta enplegarriak izatera irits

daitezen. Gainera, ikasleak sensibilizatzen dira autoenplegua beste aukera bat dela jabetzeko. Ikastetxeek eta irakasleek laguntza behar dute irakaskuntza modu berri horretara egokitzeko. Eta batez ere, sinetsi egin behar dute egiten ari diren horretan; horregatik, Tknikako ekintzailetza arloak behar duten sostengua ematen die aholkularitza, materiala, informazioa, prestakuntza-ikastaroak, bisitak, etab. eskainiz.

Pablo Peñalver Consuegrako (Toledo) Consaburum Institutuaren zuzendaria

Lean Start Up Lanbide Heziketan, ekintzaile izatea modan dago. Ekintzaile izateko prozesuan garantia gehiago behar dira; eta horretarako proposatzen dugu Lean Startup filosofia. Ekintzailetzako metodo zientifiko bat aplikatzen du Lean Startup-ek. Esperimentu bat da. Hasieran definitutako hasierako planetik, plan onera, funtzionatzen duen planera, pasatzea da.



Lean filosofiak lagunduko digu, abiadura eta ikaskuntza balidatua emango dizkigu. Ideia on bat negozio txarra izan daiteke. Ideia bat baino gehiago, merkatu bat behar dugu. Gure merkatuaren problemari soluzioa eman behar diogu gure produktu edo zerbitzuarekin. Bezeroaren problema gure produktu edo zerbitzuarekin doitu behar dugu, ikasteko, bezeroa hartuta foku gisa. Horretarako, esperimenduak egingo ditugu, eta esperimendu horien arabera, aurrera egingo dugu (jarraitu) edo aldatu (pibotatu).

Filosofia honek eskatzen du ikasgelara iristen denean tratamendu didaktikoa izatea eta, horretarako, ibilbide hau proposatzen diot ekintzaileari: ekin, ideia landu, testuinguruan kokatu, prototipoa egin, balidatu eta komunikatu.

Planteamendu honen alderdi positiboa, ekintzailetzari buruzko filosofia berritzailea izateaz gain, ikaste/irakaste prozesuan metodologia aktiboak eranstea da, Proiektu/erronka/problemetan oinarritutako ikaskuntzaren bidez, IKTak eta Mobile Learning baliatuz, eta, batez ere, transbertsalitatea ikasturtean zehar, proiektuetan edo dinamiketan,

ekintzaile-abileziak lantzea, hots, kreatibitatea, komunikazioa, kooperazioa eta konfiantza.
Horiek dira ekintzailearen 4 K nagusiak.